

ek!

eta kitto!
euskara elkartea

2025eko apirilak 11 · 1351 zenbakia

NATURAREN AZTARNAK AZALEAN

T. Etxebarria, 1
943 20 42 99

Gehien
maite
duzuna
babeatu!
%50eko
DESKONTUA!

BIZI ASEGURUA

Informazio gehiago:
eukiseguros.com

EUKI

ASEGURU ARTEKARITZA

Gure familia beti
babeatuta egongo
den **garantia**



**BISITATU GURE
PISU PILOTUA**



Erreserbatu orain zure
etxebizitza eta ez ordaindu
eskritura-gasturik

Maiztazaren
30 era
arle bakarrik!

2, 3 edo 4 logelako
etxebizitzak

Bizikleta-aparkalekuak | Gimnasioa
Jolasguneak | Gourmet aretoa

900 11 00 22 • neinorhomes.com

MGEP

MONDRAGON GO-ESKOLA PONTONIKOA
JOSE MARIA ARIZONANABARRETA, KOOP. I.



Unax Pereda

Automatizazio eta
Robotika Industrialak
Goi Mailako Heziketa Zikloa

Automatizazio eta Robotika Industrialak goi-mailako heziketa zikloa ikasten ari zara; zergatik aukeratu zuenun MGEP?

Lan-esparrura bideratuko ninduten ikasketa batzuk egin nahi nituen, eta Robotikak atentzioa eman zidan, gai horren inguruan lan-eskaintza handitzen ari baita. Argi neukan MGEPn ikasteak etorkizunean lan-munduan sartzeko aukera hobeak eskainiko zizkidala, inguruko kooperatibekin duen erlazioagatik. Kooperatibetan lan-baldintzak hobeak direla uste dut, eta, etorkizunean bertan lan egitea gustatuko litzaidakeenez, MGEP aukeratu nuen.

Eta zikloa ikasten bi urte pasa ostean, bete al dira espektatiba horiek?

Baie ikasketak bukatu aurretik, dual programa aukeratu nuen, eta ikasketak egiten nituen bitartean ULMA Packaging enpresan praktikak egin ditut urte osoan. Goizez hiru orduz egoten naiz ULMA-n eta arratsaldez beste bost ordu Eskolan. Ikasketak bukatu aurretik kooperatiba batean lan egiteko aukera izan dut.

TALENTU PROFESIONALA

eskolatik - industriara

Zaila izan al da praktikak eta ikasketak uztartzea?

Ikasten ari naizena eta ULMA-n egindako lana oso gustuko ditut, eta, egia esan, uste onena baino eramangarriagoa izan da. Babzuetan, neguan, batez ere, jardunaldia luzea egiten da, eberrera gauetz iristen naizelako. Baina dual aukerak koherentzia ematen dio ikasketa-prozesuari. Ikasketak lan-esparruan murgiltzeko helburuarekin egiten ari bazara, logikoa da enpresa batean praktikak egiteko aukera baduzu aukera horri ahalik eta etekin handiena ateratzen salatzea.

Nolakoak izan dira bi urte hauetako bizipenak?

Oso onak. Lehen urtean eduki teoriko gehiago ikusi genituen, eta bigarren urte honetan alderdi praktikak garrantzi handiagoa izan du. Libre sentitu gara jarri dizkiguten eronkak guk nahi genituen moduan egiten salatzeko. Irakasleek akatsak egiten uzten ziguten, akats horietatik asko ikasten da eta. Eta hori asko eskertu dut.

ATE IREKIAK: Maiztaz 10 / 11:00

Eman izena!

MGEP: 664 298 683 // 664 298 704





@etakitto



Bere ohiko jardunean geldialditzo bat egin eta barrura begira jarri da Jaixak Herrixak Herrixandako Eibarko jai batzordea. Hausnarketa prozesua egin du bere behar, gabezia, indarguneak eta aukerak aztertzeko, eta herrirako nahi duten jai eredia gehiago definitzeko eta barne-antolakuntza berrantolatzeko.



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Jose Luis Gorostegi,

Silbia Hernandez eta Yanire

Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOAK

943 20 67 76

AZALA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBAR
Udala | Ayuntamiento



Gipuzkoako Foru Aldundia

(*...eta kitto! k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eskutitzak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenwean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tartekak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarriak onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeke eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bwidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Datorren astean ez da alerik izango

Aste Santua dela-eta, apirilaren 18an ez duzue alerik izango zuen buzoietan. Hurrengo alea hilaren 25ean, hurrengo barixakuan, jasoko duzue betikoari jarraituz.

Erredakzioa

Hortik esanak



Orain dela 25 urte, etxeko langileen artean bertako asko genituen eta, batez ere, Espainian jaio eta Euskal Herrira etorritakoak. Gero hasi zen Espainiatik kanpoko migrazioa lehen olatua, 2005. urte inguruan, batez ere Hego Amerikakoak. Oso bitxia zen; hemengoak kezak ziren hegoamerikar iritsi berriek oso merke egiten zutelana, merke-zurrean aritzen zirela. Langile horiek paperak lortu zituztenean, orduan haiek kezak ziren paperik gabekoak merke-zurrean jardun eta baldintza okerragoak onartzen zituztelako. Beti bultzatzen gaituzte pentsatzera etsaia norbait ahulagoa dela. Etsaia beste bat da, eta izen-abizenak ditu: kapitalismoa pertsona pobreez baliatzen da prezioak jaisteko eta baldintzak okertzeko.

LOREA URETA, Bizkaiko etxeko-langileen elkarteak kidea

Espainiako musikak ez du babestuko duen industriarik. Pentsa flamenkoaren sariak Miamin banatzen direla, Grammy Latinoetan! Pringatu hutsak gara, herri-mugak gaitzeko gauza den musika hain indartsua izanik, horko sariak Miamin erabakitzeke. Sistema oso pobrea da gurea, eta ni ez nago horko zuzendariei ipurdia miazkatzeko egina. Reggaetona? Lehen jendea musikaria bihurtzen zen horrela larrua jo ahal izateko; orain, ordea, larrua jotzen dutenak sartzen dira musika egitera. Hor lagatzen dut!

KIKO VENENO, musikaria

Nerabezaroa garai oparoa da eta kendu egin behar zaio jartzan zaion kutsu negatiboa. Dependentsiatik autonomiara igarotzeko garaia izaten da, eta garrantzitsua da hori, nerabeak askotan ez baitu jakiten non kokatu burua. Hausnartu beharra dugu zer gertatzen den euren familiekin: andre asko menopausiarekin egoten dira, eta baliteke familia higitze bolada batean egotea. Egoera guztia nerabeen zentratu aurretik, analisi zirkular bat egin behar da familian. Izan ere, nerabeak pazientziak betetako gurasoak behar ditu eta, batzuetan, guraso nekatuekin egiten du topo.

PAKITA MATEOS, Agipad-eko prebentzioko arduraduna

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PIJO→ Gogo biziz, jo ta ke, buru-belarri. “Pijo diharduzu lanian, alperrik euzki galdia”.

PIKA→ Aldats gogorra. “Arnas estuka heldu nok zuenera aldatza pikia da ba”.
Damaskinatugintzan piezari eusteko erabiltzen den gai itsaskorra, bikea. Gaztelerazko ‘pez’.
“Pikan ipiñirazu orratz hau, urria ezarri deixoran”.

TUTULUMENDI



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 11	ZAPATUA 19
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)	EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
ZAPATUA 12	DOMEKA 20
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)	EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 13	ASTELEHENA 21
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)	EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 14	MARTITZENA 22
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)	EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
MARTITZENA 15	EGUAZTENA 23
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)	EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUAZTENA 16	EGUENA 24
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)	EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUENA 17	BARIXAKUA 25
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)	EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
BARIXAKUA 18	GAUEZ BETI , 2024an, Lekunberri (Isasi, 31)
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)	

Hildakoak

- **Paco Elkoro Ansoa**. 87 urte. 2025-04-02.
- **Adela Rodriguez Gordillo**. 97 urte. 2025-04-03.
- **Francisco Romero Horrillo**. 75 urte. 2025-04-03.
- **Francisco Javier Ircio Ezquer**. 69 urte. 2025-04-04.
- **Francisca Garcia Figueres**. 84 urte. 2025-04-05.
- **Gonzalo Gutierrez Castro**. 98 urte. 2025-04-05.
- **Iñaki Arana Muruamendaraz**. 58 urte. 2025-04-08.

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udalzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20



Turistak gurera ekartzeko estrategia berriaren baitan, Eibarko industria ezagutu nahi dutenentzat bisitak eta bestelako esperientziak eskainiko dituzte.

Eibar turismorako erreferente bilakatzea helburu duen estrategia

Hondartza eta eguzkia baino zer-bait gehiago nahi duten bisitariak gurera erakartzea nahi du Udalak, eta asmo horrekin aritu dira aste honetan aurkeztu duten turismo-estrategia lantzen. Esan dutenez, “eskaintza lau ardatz nagusiren inguruan egituratuta egongo da: industria; kirola; artea-kultura-historia; eta natura. Eibar turismo identitarioaren erreferente izatea da helburua, eredu jasangarri, integratzaile eta lehiakor batekin ezagarrituta”.

Alkatearen berbetan, “gure herriaren ez da beharrezkoa errelato turistiko bat asmatzea: badauka bat, eta indartsua, benetakoa, eta eraldatzailea da. Proposamen honenkin pauso erabakigarri bat eman-gu dugu, munduari zer garen era-

kusteko: nortasun handiko hiria, balioak dituen, berrikuntzaren aldeko apustua egiten duena, eta bere jendearekin eta inguruarekin konprometituta dagoena”.

Proposamenak alderdi kulturalak, sozialak, urbanistikoak eta kirol- eta berdintasun-arlokoak uztartzen ditu, “hazkunde ekonomikoaz gain, herritarren bizi-kalitatea hobetuko duen turismo mota bat sustatzeko”. Hiria dinamizatzearekin batera, Eibar Euskadi mailan turismo industrialaren erreferente gisa kokatu nahi dute. Horrela, Eibarko industria-ondarea esperientzia turistiko bereizgarri baten ardatz nagusia izango da: “Industria-arkitekturaren ibilbideetik hasita, gaur egun martxan dauden tailerretaraino, hiria museo

Aste honetan eman dute ezagutzera turismorako udal-estrategia berrikoa Jon Iraola alkateak eta Vanesa Hortas Ekonomia Garapen, Enplegu eta Berrikuntza zinegotziak. Euskadiko, Gipuzkoako eta Debabarreneko plan estrategikoeekin lerrokatuta, 2024. urtean zehar garatutakoa da, baina emaitzak ikusteko itxaron egin beharko dugula aurreratu dute, asmoa 2025-2028 bitartean burutzea da eta.

bizi bat izango da”. Vanesa Hortas Ekonomia Garapen, Enplegu eta Berrikuntza zinegotziaren berbetan, “Eibarko herriaren arima industrian dago. Bisitariak lana nola egiten den sentitzea nahi dugu. Horregatik, esperientzia bizien aldeko apustua egin dugu: teknologia, tailerrak, ibilbideak, eta aplikazio digital bat”.

Armagintzaren Museoa handitzeko lanean dihardute

Prozesu honetan Eibarko Armagintzaren Museoa “giltzarria” izango dela nabarmendu dute, eta Museoa handitzeko lanean hasita daudela, “nahiz eta horrelako proiektuak ezin diren egun batetik bestera martxan ipini”.

Beste zutabeetako bat Eibarko kirol-tradizioari lotuta dago: “As-telena frontoia, Ipuruako futbol zelaia, Itzulia, Arrateko Igoera...”. Hori guztia, jakina, herriaren historia eta kultura ahaztu barik. Eta, proiektua biribiltzeko, gure herriak ingurune naturalarekin duen lotura indartu nahi dute.



Maiatzaren Leheneko ekitaldirako autobusa antolatu du LAB sindikatuak

Donostian ospatuko du Langileen Eguna LAB sindikatuak, eta Debabarrenetik bertara joan nahi dutenentzat autobusa antolatu dute. Ekitaldi nagusia 12:00etan, Easo plazan hasiko da eta autobusa 10:20ean irtengo da Ego-Gainetik. Izen-ematea LABeko egoitzetan eta Guridi tabernan egin daiteke edo, bestela, mezua bidali (eibar@lab.eus / 635 197 944 WhatsApp-era).

Palestinarentzat lurra, justizia eta bakea eskatu ziren egunean Eibarren ere

Gernika-Palestina-herri ekimenak deituta, atzo arratsaldean mobilizazioak burutu ziren Euskal Herriko herri guztietan, "Lurra. Justizia. Bakea" lelopean. Bakearen aldeko elkarretaratze guztiak ordu berean egin ziren, eta Eibarren Untzaga plazan egindakoak eibartar askoren parte-hartzea izan zuen. Amaieran, martxoaren 22an urgentziaz Donostian deitutako manifestazio nazionalaren amaieran irakurri zen Jon Maia-

ren idatzi berbera irakurri zuten bertan bildutakoentzat, "Palestina, zurekin gaude! Ez zaitugu inoiz bakarrik utziko!" adierazita (testuaren irakurketa osoa gure webgunera eta YouTubera igo dugun bideoan daukazue, mobilizazioaren irudiekin batera). Horrez gain, eibartarren artean sinadurak biltzen aritu ziren, modu horretan Eibarren Palestinari elkartzuna azaltzeko horma-irudia egiteko baimena Udalari eskatzeko.



Arrateko bidea ikurriñekin bete nahi du Gure Eskuk, gure nazio-izaera erakusteko

Eibarko Gure Eskuk bihar Arrateko bidera ikurriñekin joatera animatu nahi ditu herritar guztiak, Itzuliaren 6. etapa Eibarren hasi eta amaituko dela aprobetxatuz, "gure nazio-izaera eta erabakitze eskubidea aldarrikatzeko". Itzuliaren ibilbidean dauden beste herri guztietan bezala, Eibarren ere makildun ikurriñak banatuko dituzte, toki eta ordu hauetan: San Andres eliza-

ren atariko plazan, 12:30ean eta 16:00etan; eta Ixuan, 14:00etan. Horrez gain, *Herri libre bat* dinamikaren materiala ere bertan salgai egongo dela jakinarazi dute. Azaldu dutenez, "erronka handiak bizi ditu Euskal Herriak eta, horiei erantzun ahal izateko, erabaki guztiak bertatik hartzea ezinbestekoa dugu. Herri bat gara eta geure etorkizuna libre eta demokratikoki erabaki nahi dugu".



Lan-baldintza hobeak eskatzeko grebara jo dute Eurocen enpresako langileek

Adecco multinazionalaren mende dagoen eta azpikontrata-enpresa gisa ABCn pintura-lanak egiten dituen Eurocen enpresako langileek lehen greba eguna egin dute aste honetan, astelehenean, beraien lan-baldintzak defendatzeko. Deitzaileek oso positibotzat jo zuten

mobilizazioen atarikoak eta, beraiek eman dituzten datuen arabera, grebaren jarraipena %100ekoa izan zen. Aurrera begira, eta eskatzen dituzten hobekuntzak lortu ezean, beste bi greba egun deitu dituzte maiatzerako, eta 15 greba egun gehiago ekainerako.



Soldata eta pentsio duinak eskatzeko manifestazio jendetsua egin zen zapatuan

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak apirilaren 5erako deitutako mobilizazioekin bat eginez, Eibarren manifestazio jendetsua egin zen aurreko zapatuan. Solda-

ta eta pentsio duinak, gutxieneko pentsioak zein soldatak bidezkoak izatea, eta gutxieneko soldataren pareko gutxieneko pentsioak eskatu zituzten, besteak beste.

Deparkelek atek zabalduko ditu gaur, Parkinsonaren Egunean

Parkinsonaren Munduko Eguna da gaur eta, horren aitzakiarekin, atetirekien jardunaldia prestatu dute Deparkel Debabarreneko Parkinson Elkartekoek, Ardantza kalean duen lokala eta bertan burutzen duten lana bertatik bertara ezagutu nahi duten guztientzat. Arduradunek gonbidapen irekia egin dute: “Jende guztia etortzera animatu gura dugu. Nahi duten guztientzat atek zabalik egongo dira gaur, 16:30etik 18:30era, eta jan eta edatekorik ez da faltan izango”.



Auzozainen figura berreskuratuko da, herriko segurtasuna indartzeko

Udaltaingoak auzozainen figura berreskuratuko duela jakinarazi du Udalak, “Eibarren segurtasuna indartu eta herritarrengandik gertuago egoteko”. Auzozain horiek bizilagunekiko lotura indartu, eta herri barruko arazoak azkarrago konpontzea ahalbidetuko dutela ere adierazi dute. Herri osoan esaldura eraginkorra bermatzeko, lau auzozain arituko dira, bakoitza eremu espezifiko batean: Amaña-Legarre, Urki-Ipurua, Jardiñeta-Ekialdea eta Erdialdea.



Errepublikaren aldarria gogoratzeko argazkiak ipini dira

Astelehenean beteko dira 94 urte Eibarren beste inon baino lehen aldarrikatu zela Bigarren Errepublika eta, hori gogoan, argazki his-

torikoak ipini dira herriko hainbat tokitan. Bestalde, Espainiako Gobernuak demokraziaren garapenerako aparteko garrantzia izan

diren memoria-tokiak goratuko ditu, eta aitortza jasoko dutenen artean dago Eibar. Astelehenean bertan hasiko da izendapen-prozesua. Horretara etorriko dira Gobernuko hainbat kide, tartean Fernando Martinez Espainiako Gobernuko Memoria Demokratikoaren estatu-idazkaria.

LAN ESKAINTZA

Kazetari-diseinatzailea behar da

ESKATUKO ZAIO

- Kazetaritza, komunikazioa edo pareko unibertsitate ikasketak izatea.
- Euskara maila oso ona izatea.
- Eibarkoa izatea edo Eibar ondo ezagutzea.
- Diseinu grafikoan prestakuntza izatea.

ESKAINIKO ZAIO

- Lanaldi osoko lan kontratua (mugagabea izateko aukerarekin).
- 30 urteko ibilbidea duen elkarte kide izatea.
- Ordu-tegi malgua.
- Proiektu erakargarria/ Langiro atsegina.

BALORATUKO DA

- Kazetaritza lanetan esperientzia izatea.
- Multimedia kazetaritza: sare sozialak, webgunea...
- Bideogintzan eta argazkigintzan ezagutzak izatea (Adobe Premiere, Photoshop edo antzerakoak).

CVak bidaltzeko epea
apirilaren 28ra arte

elkartea@etakitto.eus

eta kitto!
euskara elkarteak



Naturan eta historian barrena

Askok gaur bertan hasiko dituzte Aste Santuko oporrak, beste batzuek egun batzuk itxaron beharko dituzte; baina, eguraldiaren iragarpenak asko laguntzen ez duen arren, aisialdirako egunak datoz gehienentzat. Momentu zoragarria izan daiteke inguruan ditugun txokoak ezagutzeko, orain arte oharkabean pasa zaizkigun tokiak batez ere. Hona hemen hainbat proposamen.

BIDEOA



Eibarko mugetatik kanpo, baina hemendik oso kilometro gutxira, Debarreneko toki esanguratsu bat aurkitzen dugu: Karakate eta Irukurutzeta arteko natura eta historia-intereseko gunea. Paisaia ikusgarriz inguratuta, hainbat bide daude Karakate, Kortazar, Irukurutzeta eta Agarreburu inguruan, “baina horietako asko jendearen % 90arentzat ezezagunak dira”, Martin Ezenarro Irukurutzeta Fundazioko sortzailearen ustez, “ohituragatik edo beste bide batzuk hartzeko beldurragatik, normalean jendea toki beretara joan ohi delako”.

Julian anaiarekin batera Irukurutzeta Fundazioa eratu zuten, txikitako ametsa betez. “Umetatik mendian ibili izan gara. Sasoi horretan ez zegoen beste ezer egiterik eta lagunekin ibaira, mendira edo baserrietara joaten ginen. Barruraino sartu zitzaigun mendizaletasuna”, azaldu digu Julianek. “Gero, Pirinioetara joan ginen hainbat ur-

tetan, baita Dolomitetara eta Alpeetara ere, baina gure ametsa gure lurra edukitzea zen”, eta 2021ean bete zuten ametsa. “Pinuak zituzten baserriar askok lurra kendu nahi zituzten eta, guk erosteko interesa genuenez, eskaini egin zizkiguten”, kontatu digute.

Osintxu inguruan hektarea pare bat erosi zituzten eta, harrezkero, lursail gehiago erosten joan dira, gaur egun 53 hektarea kudeatu arte. “Demaseko lana da”, Julianen berbetan, baina maitasun handiz egiten dute eta atseginez pasatzen dituzte egunak mendian sartuta.

Maitasunaz gain, oster, dirua ere behar da lursail horiek eskuratzeko eta, zentzu horretan, hainbat enpresaren laguntza jaso dute. Hala nola, Soraluze Kooperatiba, Orona, Erreka, Fagor Arrasate, Dikar eta Elay. Bestela ere, norbanakoek laguntzeko aukera dute Bizum bitartez (GKE-en artean ‘Irukurutzeta Fundazioa’ bilatu “irukur” idatzi edo, bestela, 08945 kodea idatzi).



Karakate eta Irukurutzeta arteko naturgunea animaliak ibiltzeko basoa izatea nahi dute Ezenarro anaiek. IRUKURUTZETA FUNDAZIOA

Natura eta historia-intereseko gunea

Fundazioaren helburu nagusia Karakateko, Kortazarreko, Irukurutzetako eta Agarreburuko natura eta historia-intereseko gunea berreskuratzea, mantentzea eta gizarteratzea da. Eta helburu nagusi hori betetzeko, lau jarduera zehatz egingo dituzte:

Batetik, naturgunean dagoen mendia eskuratzea, berreskuratzea eta mantentzea, zuhaitzak dituen larre bihurtuz. “Fundazioak egiten duen lanari esker, mendia garbi dago”, diosku Martinek. Bigarrenik, bertako zuhaitzak berreskuratzea eta mantentzea (pagoa, haritza, lizarra, artea...). “Ez dugu baso itsua izatea nahi, abereak ibiltzeko basoa baizik. Gainera, eukaliptoaren landaketei aurre egin nahi diegu”, gehitzen du. Hirugarrenik, bertako fauna (Pottoka eta Euskal Herriko mendiko zaldia) eskuratu, berreskuratu eta mantentzea, abeltzaintza estentsiborako berreskuratutako naturgunea aprobeztatuz.

“Badakigu batzuk izutu egiten direla abereekin, baina abereak euren habitat naturalean daude eta animaliak ditugunontzat aukera hori edukitzea zoragarria da”. Eta lau garrenik, naturguneako flora, fauna eta interes historikoa gizarteratzea eta sustatzea.

Izan ere, naturgunea izateaz gain, iraganera garamatzaten bideak aurki ditzakegu bertan. “Mendi hau sumendia da, eta mendiaren alde batean eta bestean baso ezberdinak aurkitu daitezke, baita haitzuloak eta elur-zuloak ere. Gainera, 1936ko Gerrako lubakiak, erromatar kanpaleku baten aztarnak, hogeitrikuharri (gorpuak ehorzteko eraturiko monumentu megalitikoak) eta bertaratzen den edonor txunditzen duen Arribiribiletako zutarria (menhir) daude”, kontatu diguten.

Irukurutzeta Fundazioaren inguruan gehiago jakin nahi izanez gero, irukurutzetafundazioa.eus webgunean aurkitu daiteke informazio gehiago.

>>> Irukurutzeta Fundazioarekin txikitako ametsa bete dute Martin eta Julian Ezenarro anaiek



Dagoeneko egin dira urteko lehen bisitak Arraten dagoen Gerra Zibileko Interpretazio Zentroan. EL DIARIO VASCO

>>> Gerra Zibilean Arrate inguruan egin ziren guden inguruko informazioa jaso daiteke Interpretazio Zentroan

Eibarko flyscha

Azken urteotan ezagutu dugun ize-na da flyscha, begien parean beti izan dugun arren. Ziurrenik Iberiar penintsulako eta nazioarteko flyschik ezagunena Euskal Kostaldeko Geoparkekoa da, Deba eta Zumaia artekoa, baina Eibarren ere badugu flyscha, saihesbidea egiteko obrek azaleratu zutena.

Morkaiko Leizarpe Espeleologia taldeko Angel Maria Tobajasek 'Paisajes y parajes singulares del Bajo Deba' argitaratu du eta bertan jasotakoak kontatu dizkio Elgoibarko Barren aldizkariari. Bertan azaltzen duenez, Eibarko flyscheko harkaitzgeruzetan historia geologikoaren milioika urte irakur daitezke. Itsas azpian poliki-poliki metatzen joan ziren sedimentuek osatu zituzten konposizio ezberdineko geruza horiek eta, beraz, ez da harritzekoa Eibarko flyschan ere itsas fosil ugari topatu izana. Ugarienak inoceramusen fosilak dira. Bi kuskuko maskorra zuten moluskuak ziren

inoceramusak eta Goi Kretazeoan galdu ziren. Hala ere, ugariagoak dira geruza horietan garai hartan itsas honoan bizi izan ziren organismoen presentzia adierazten duten aztarnak, narrasti-pistak-eta. Topatu dituzte, era berean, itsas honoan bizi ziren zizareek zulatutako tunel-sareak ere.

Kostaldeko flyscharekin alde-ratuz gero (Kretazeoaren eta Terzarioaren arteko muga eta Paleozenoaren eta Eozenoaren artekoa argi ikus daitezke bertan), ezberdintasun nabarmen bat azpimarratzen du Tobajasek: "Kostaldekoea etengabe garbitzen da olatuekin, baina Eibarkoa lausotzen ari da landaredia hazten ari delako. Beraz, iraungitze-data duen flyscha da Eibarko hori".

Paisaia bolkanikoa Maltzagan

Eibar eta Elgoibar artean paisaia bolkanikoa nabarmentzen da, batez ere Maltzagatik Elgoibarko hilerri pareraino doan ibaiaren zatian.

>>> Flyscha, paisaia bolkanikoak... altxor geologiko ikusgarria dugu Debabarrenean, baita Eibar inguruan ere

"Ibilbide horretan topa ditzakegun haitz bolkanikoei basalto esaten zaie generikoan; baina, haien itxurari erreparatuz gero, askotarikoak daude: arroka igneoak edo magmatikoak, plutonikoak, piroklastikoak, basikoak, filoniarrak...", Tobajasen berbetan. Hain zuzen ere, basalttoa da Deba ibaian, kilometro barruan, hiru zentral hidroelektriko egotearen arrazoia: ibaiak perfil malkartsua du basalttoa higatzea askoz zailagoa delako inguruko harri sedimentarioak baino; ondorioz, ibaian ur-azkarrak eta saltoak sortzen dira, argindarra sortzeko erabili direnak.

Tobajasen ustez, inguru honetan gaia ikertzeko zentro bat sortzeko mereziko luke. Izan ere, Debabarreneko bolkanismoak dozenaka milioi urteko aldia hartzen du bere baitan, duela 100 eta 80 milioi urte bitartekoa.

Gerra Zibilaren Interpretazio Zentroa

Naturaz inguratuta, baina gertuko historiari lotuta, Udalak Arraten



Sahiesbidea egiteko obrek agerian laga zuten Eibarko flyscha. EKHI BELAR

dagoen Gerra Zibilaren Interpretazio Zentroa zabaldu du hilaren lehen asteburutik aurrera. Horrela, domekero zabalduko dute, 11:30etik 13:30era (Aste Santuko jai-egunetan ere bai, baina abuztuko hiru asteburutan (10ean, 17an eta 24an) itxita egongo da.

Jose Luis Valenciagak lagunduta, 1936. eta 1937. urteetan Arraten izan ziren guden azalpenak jaso zituzten aurreko asteburuan

gurean egon ziren bisitariak. Gainera, Gerran erabilitako uniformeak, armak eta bestelakoak ere daude ikusgai. Eta, horrez gain, Gerra bizi izan zutenen testigantzak jasotzen dira ikus-entzunezko baten bitartez.

Interpretazio Zentroaren irekiera osatzeko, Akondia, Garagoitxi eta Kalamua eremuan irauten duten aztarna ezberdinak ikusteko bisita gidatuak antolatuko dira.

Jaixak Herrixak Herrixandako, biziberrituta eta ilusioz

Geldialditxo bat egin, barnera begira jarri eta hausnarketa-prozesua egin du Jaixak Herrixak Herrixandako (JHH) jai batzordeak. Hainbat urte daramatza martxan taldeak eta belaunaldi berriek eman diote jarraipena denbora honetan, sasoian sasoikora egokituz, jaiotzatik izan dituzten helburu eta filosofiari eutsiz eta berrituz. Orain, ilusioaren deiadarra egin dute JHH biziberritzeko.



BIDEOA



JHH plataformako Helene Otaduy eta Maddi Berriozabal izan ditugu solaskide jai batzordearen prozesu parte-hartzailea sakonago ezagutzeko eta JHH-k hartu duen bidea jakiteko. Hain zuzen ere, astelehen arratsaldean elkartu ginen, San Juan jaietako egitaraua prestatzeko bilera zuten momentu berean, hausnarketarako tarte hartu arren, JHH-k buru-belarri jarraitzen duelako herriarentzat jai herrikoiak eskaintzeko lanean.

Otaduyk azaldu digunez, “pandemiaren ondoren belaunaldi aldaketa eman zen JHH-ren barruan eta profil berria duen jendea iritsi zen taldera. Beraz, beharrak asetzeko edo aurretik zeuden behar ez asetuei erantzuna emateko premia zegoela ikusi genuen. Aldaketarako nahia zegoela ikusi genuen, baina baita motibazioa eta gogoia ere. JHH-ri beste buelta bat eta balioa eman nahi genion”.

Ez hori bakarrik. Azken urteetan gero eta egitarau anbiziotsuagoak eta jendetsuagoak antolatu dituzte. “Oso motibatuta gaude, baina “JHH-ren dinamikan jende berdina edo gutxiago ari zela ikusi dugu, desoreka dagoela”, Berriozabalen berbetan. Gauzak horrela, JHH-k prozesuaren inguruko txostenean azaldu duenez, “gero eta zailagoa da jai herrikoi, feminista, euskaldun eta parte-hartzaileak antolatzea”. Beraz, horri aurre egiteko, prozesu ireki eta parte-hartzailea sustatu zuten. “Talderako profil berriko jendea etorri zen eta ondo dago jende berria egotea, pentsatzeko modu berriak... Gu geu ere errutinan erori gaitzke eta beti gauza berak egiten jarraitu dezakegu. Dena dela, beti egon garenok ere parte hartu dugu prozesuan eta horrek balioa du. Izan ere, gure egiteko moduak birplanteatzen ari gara”, Berriozabalen ustez.



2025eko San Juan jaietako egitaraua prestatzeko bilerak egiten hasi da dagoeneko JHH jai batzordea. EKHI BELAR

Hausnarketarako lau saio

Prozesua 2023ko azaroan abiatu zuten eta, bertan, JHH-ren etorkizuneko jardunaz hausnartu zuten, testuinguruan kokatuz eta sortu nahi duten jai eredu euskaldun, parte-hartzaile, herrikoi eta feminista praktikara eramanez. Horretarako, zenbait saio egin zituzten.

Lehenengo saioan JHH-en testuinguruaren inguruko hausnarketa egin zuten. “Barrura begira jarri ginen gure beharrak identifikatzeko eta zer aldaketa mota lortu nahi genuen zehazten joateko”, Otadyk dioenez. Besteak beste, Eibarko Udalaren jai ereduaz mintzatu ziren. “Zaharkituta dago eta oso errepikakorra da”, JHH-ren berbetan. “Udalaren eskaintzak ez ditu gazteon beharrak asetzen eta ez diote inongo garrantzirik ematen hizkuntzari, parte-hartzeari, espazio seguruak sortzeari, eta abar. Horren aurrean, JHH-ren jarduna beha-

Jai batzordeak prozesu partehartzaile garatu du, etorkizuneko jardunaz hausnartuz aurrera begira jartzeko

rrezkoa da”. Horrez gain, JHH-ren anbizioa eta auzolanaren gainbehera, eta JHH-ren barne-antolakuntza ere aztertu zituzten.

Bigarren saioan, JHH-ren balio nagusiak definitzen eta ezaugarritzen saiatu ziren, eta plataformaren abizenen inguruan hausnartu eta definitu egin zituzten. JHH herrikoia, feminista, parte-hartzailea eta euskalduna da, eta hemendik aurrerako

ekintzak antolatzeko filteroa izango dira, eurek ezarri nahi duten jai eredu bermatuz. Hain zuzen ere, hori izan zen hirugarren saioaren muina, teoriatik praktikara eta ekintza zuzenetara nola egin jakiteko. Dena dela, abizen horiez gain beste balio batzuk landu beharra ikusi zuten (adinartekotasuna, kulturartekotasuna, LGTB komunitatea...), etorkizuneari gehitu daitezkeelarik.

Laugarren eta azken saioan, JHH-ren antolaketaz jardun zuten. Jaiaren antolaketa integraletik, herriko talde ezberdinen koordinazio espazio izatera igaro nahi du JHH-k. “Hau da, JHH-ren lana koordinazioa izatea eta ez jai guztiak goitik behera antolatzea”, azaltzen du Berriozabalek. Izan ere, antolaketa eredu berria pentsatzeko orduan herritarren parte-hartzearen eta eraginkortasunaren arteko oreka bilatu nahi izan dute. “JHH-ren egitura-rena eta jaiaren antolaketaren oinarria

JHH-ren abizenak definitzeaz gain, barne-antolaketan eta egiteko moduetan aldaketak proposatu ditu plataformak



herriko elkarte, eragile eta norbanako taldeek osatzeko apustua egiten dugu”, dio plataformak. Eta gero, JHH-ren erabakigune eta espazio nagusia asanblada izango litzateke.

Teoria praktikara eraman

Hausnarketa prozesuaren ondorioz JHH berrindartuta irtengo dela espero dute eta, bizi-bizirik dagoen plataforma izanik, gauza berriak egiten jarraituko dute hemendik aurrera ere, beti daudelako egoera eta behar berrietara egokitzeko asmoz eta, nola ez, ondo irteten ez diren gauzei buelta emateko gogoz. “Adibidez, belaunaldien arteko harremanaz egin genuen berba saioetako batean eta adin ezberdinetako jendearengana heltzea da markatu dugun helburuetako bat”, diosku Otaduyk.

Hausnarketa prozesuan ateratako ondorioen adibide garrantzitsua biharko antolatu duten ‘Ostirala iritsi



Porrotx eta Marimotots pailazozen 'Ostirala iritsi da' ikuskizuna antolatu dute biharko.

da' ikuskizuna da. “Eguneko egitaraua indartu nahi dugu, gauekora bakarrik ez mugatu, eta urtean zehar ekintza ezberdinak egin nahi ditugu, jai jakinetara mugatu barik”, esan digu Berriozabalek. Horrela, Porrotx eta Marimotots pailazozen saio bikoitza (16:00etan eta 18:00etan) eskainiko dute bihar, Coliseo antzokian. Oraindik sarrerak salgai daude eta jaixakherrixakherrixandako@gmail.com helbidera idatzita eskura-

tu daitezke alde zurretik. San Juan jaiak ere ate joka ditugu, eta dagoeneko hiru bilera egin dituzte egitaraua prestatzeko. “Aurtengo San Juanak esanguratsuak izango dira, prozesuaren ondorioz zehaztu dugun antolaketa berriaren emaitzak ikusiko ditugulako, besteak beste”, diosku Berriozabalek. Bilera hauek irekiak izaten dira eta Instagram (@jaixakherrixak) bidez ematen dute horien berri.



INA OIARTZABAL ERRASTI • Anastasio Errasti "Atxero" sozialista azpeitiarraren biloba

Frankismoaren herentzia ala III. Errepublika?

Urtero-urtero, apirilaren 14an, Espainiako 1931ko II. Errepublikaren aldarrikapena gogoratzeko, Eibarren oroipen ekitaldiak egin ohi dira. Iaz PSE-EEkoek antolatutakoan egoteko aukera izan nuen baina, zoritxarrez, ondoren adieraziko dudanagatik, bertan ikusitakoak tristura eta amorrua besterik ez zidatela eragin adierazi behar dut.

Bi arrazoigatik, sasoi hura eta ondorengo gertaera ilun guztiak oso presente izan ditut beti nire bizitzan. Alde batetik, orduko Azpeitiako sozialista bakarrenetakoa zen nire aitxitzak, behin eta berriz, II. Errepublikaren defentsan sufritu zuen guztia jaso izan nuelako (heriotza-zigorren kondenapean igaro zituen 386 gau beltz lazgarriak, erbestealdia,...); eta, bestetik, nire ama II. Errepublikaren aldarrikapenarekin batera jaino zelako.

Aurten 50 urte beteko dira Europako historia modernoan egon den hiltzaile eta genozida handienetakoa -Franco diktadorea- hil zela. Baina hura, XX. mendeko beste diktadoreak ez bezala, ohore handiz zahartuta ohean hil zen. Hori bai, dena ondo lotuta utzi eta gero hil zen: urteetan eraikitako egitura juridiko, erlijioso, militar eta polizialak, hain zuzen ere.

Horiek horrela, 50 urte ez al dira urte asko "Gora II. Errepublika" oihukatu edota "Untzaga Plaza, oroimenaren lekua" izendatzeaz gain, zerbait gehiago egiteko? PSOE-PSEko kideek zer egin duzue Errepublikaren balioak eta egiturak berreskuratzen saiatzeko?

Memoria berreskuratzearen alde zaudetenok, nolatan mantendu dezakezue indarrean 1969ko Sekretu Ofizialen Legea, horiei esker milaka gertaera mingarri (erailketak, torturak,...) argitzen lagunduko litzatekeela jakinda? Nola liteke, Estatu ez-konfesional batean, oraindik Elizari oparitu zitzaizkion pribilegioekin jarraitzea? Nola da posible mantentzea 1953an espainiar estatu frankistak Vatikanoarekin izenpetutako eta 1979an berretsiko itun lotsagarri horiei eustea? Izan ere, adibidez, gaur-gaurkoz, eskola publikoan Erljioa arloa derrigorrez eskaini behar da, baita ikasle bakar batek aukeratzen badu ere.

Nola liteke, Europan ia salbuespena den, gizartearen erdia Hezkuntzako Sare publikoan eta beste erdia Sare pribatu-itunpekoan (*Escuelas Cristianas*, Ikastolak, *Deutsche Schule*,...) banatzearekin ados egotea? PSE-EEko kideek nola onartu duzue 2023ko Hezkuntza Lege berria? Oinarrian, eskola publikoa eta pribatua ia berdintzen duen lege bat!

Zer esango ote lukete II. Errepublikaren defentsan hil ziren guztiak, fosa-komunetan eraildako eta desagerrarazitako milaka eta milaka pertsonak, mende erdia igaro ondoren, Francok berak herentzian utzitako botere erlijioso, judizial eta polizialaz aparte, monarkia bezalako erakunde anakroniko eta atzerakoiak jarraitzen duela ikusiko balute?

Beranduegi izan baino lehen, Francoren oinordeko zuzenak bularra ateratzen eta beraien mezu atzerakoiak normalizatu nahian dabiltzan garai arriskutsu hauetan (mundu mailako joera orokorra), ea 1931n gure atxixta-amamek amestu eta lortu zuten gisara -urte gutxi eta gatazkatsuegiak, zoritxarrez-, 2031rako III. Errepublikaren aldarrikapena gauzatzeko gai zareten. Eta, ahal badu, nire amak ikus dezala!!!

"50 urte ez al dira urte asko Untzaga Plaza oroimenaren lekua izendatzeaz gain, zerbait gehiago egiteko?"

Astindu ohiturak!!



Errenta aitorpena?

EUSKARAZ!!!

Zure aukera da!

Zelan?



- **Autolikidazio proposamena** onartzerakoan, esan euskaraz egin nahi duzula .
- **Mekanizatua egiteko**
 - ordua hartzerakoan, esan euskaraz egin nahi duzula.
 - aitorpena egiterakoan, esan euskaraz egin nahi duzula
- **Internet bidez** egitean, jaitsi errenta programaren euskarazko bertsioa, eta hobetsitako hizkuntza atalean aukeratu euskara.
- **Aholkularitzaren** bat aukeratzen baduzu, adierazi euskaraz egin nahi duzula.



*Elkar mugituz
egingo dugu*



Jon Alonso

Zergatik iruditzen zaizu euskaraldia garrantzitsua? Zein ekarpen egin ahal dio Euskaraldiak euskararen erabilerari Eibarren?

Beti izan dut argi horrelako ekimen eta ekitaldiek herria batu egiten dutela; eta, bereziki denek zeozer helburu berarekin egiten dugunean, ilusio hori elkarbanatu egiten dela. Eibarren eta inguruan euskalgintzan diharduten erreferenteak ditugu, eta ilusio hori besteei pasatzeko eta kutsatzeko gai dira. Horregatik uste dut Euskaraldia oso erabilgarria dela.

“Denek zeozer helburu berarekin egiten dugunean, ilusio hori elkarbanatu egiten da”

Azken urteetan Eibarren euskararen erabilera jaitsi egin dela somatu dut. Lehen oso euskaratuak zeuden eremu askotan erdara nagusitu da. Euskaraldia bezalako ekitaldi batek ekarpen potoloa egin diezaioke herriari eta parte hartzen dutenei, eta baita parte hartzen ez dutenei ere, ilusioa kontagiatu egiten delako parte hartzen dugunon artean. Kanpotik irudi eta talde bateratua bezala aurkezten bagara, jendeak hurrengo Euskaraldietara eta euskararen inguruan dauden mugimendu guztietara gerturatzeke nahia edo grina agertuko duela uste dut, edo horrela espero dut.

Euskaraldiaz aparte, Eibarren ekitaldi asko egiten dira euskara bultzatzeko; ekimenak badaude eta euskaraz egiteko aukera ere bai. Horretaz guztiaz gain, euskalkien defendatzaile sutsua naiz, eta norbanako moduan horri eutsi nahi diot. Eibarren daukagun euskalkia kristona da, baina Eibartik ateratzen garenean, lan eremuan batez ere, galdu egiten dugu, uste dugulako batuak berdintasun bat ematen digula denoi. Eibarko euskarari eutsi eta irudi moduan eraman behar dugula uste dut.



Simone Begiristain

Zer ohitura aldatzeko asmoa duzu aurtengo Euskaraldian? Baduzu aholkurik ariketako 11 egunetan baliagarria izan daitekeena?

Zaila egiten zait gai honetan zer egingo nukeen definitzea eta oraindik zailagoa nondik hasi erabakitzea. Herri kolonizatuan bizi gara. Hizkuntza eskubidea ere urratuta duen herri batean. EUSKARALDIA bezalako kanpainak asmatu behar ditugu gure hizkuntzari nolabaiteko pizgarri eta ikusgarritasuna emateko.

Aholkurik ez dut, neure ohiturak tinko mantentzen nahiko lan! Beti egin dudan moduan, nire esparruan akuilu lanean jarraituko dut.

Dudan joeretako bat aldatzeko saiakera berezia ere egingo dut. Nahiezta, inertziak gazteleraz esaten ditudan "koletiletan" arreta jarri eta murrizten saiatuko naiz.

Egia da zorte handiko sentitzen naizela, nire oso hurbilekoen artean gehienok euskaraz aritzen garelako, baina urmaelaren lehen eraztunean geratzen naiz. Eraztun horretatik haratago nola heldu?

“Guztiok euskararen erabilera indartzeak duen garrantziaz kontzientzia hartzeko pilulak diseinatu nahi ditut 11 egun horietan”

Amets egin nahi dut, ordea: guztiok euskararen erabilera indartzeak duen garrantziaz kontzientzia hartzeko pilulak diseinatu nahi ditut 11 egun horietan.

Eta... akuilu-pilula hauek 15etik 25era ez ezik segidan etorriko diren beste hamaika eraztunetan bulkada eragingo dute. Kontzientzia hartu eta egunerokotasunean ahobizi eta belarriprest gure bihotzetan tatuatu, "euskarra plazara" atera eta hizkuntza berkonkistatuko dugu. Elkarreraginez, guztion bihotzak piztuz, elkar mugituz egingo dugula amestu dut.



Gaur zabaldu da epea maiatzaren 9ko Familien arteko Altxorraren Bila ekintzan parte hartzeko

Familien arteko Altxorraren Bila antolatuko du ...eta kitto! Euskara Elkarteak maiatzaren 9rako, barixakua. Parte hartzeko izen-ematea gaur bertan zabaldu da eta maiatzaren 5era arte egongo da horretarako aukera. Aurten aldaketa dago parte-hartzaileen adinari dagokionez; izan ere, Haur Hezkuntzako 4. mailatik hasita Lehen Hezkuntzako 4. mailara arteko ikasleei eta haien familiei zuzenduta egongo da aurtengo edizioa. Taldeka eman beharko da izena eta taldeak, asko jota, 10 kidekoak izango dira. Taldekideak familia berrekoak edo kuadrillakoak edo lagunak izan daitezke, baina bi-lau heldu egon beharko dira talde bakoitzean. Ezinbestekoa izango da gutxienez helduetako batek ahozko zein idatzizko euskara ulertzea.

Hasierak ere aldaketa izango du, Untzagan hasi beharrean Errebalen hasiko da-eta, hori bai, ohiko orduan, 17:15ean. Bertan jasoko dute taldeek lehenengo pista eta, hortik aurrera, asmatzen joan ahala pista berriak jasoko dituzte helmugara iritsi arte. Amaieran sariak egongo dira parte-hartzaile guztientzat. Izena emateko hainbat modu daude: ondoko QRko inprimakia betez, telefonoz (943200918) edo emailaz (elkartea@etakitto.eus).



...eta kitto! Euskara Elkarteak ere Euskaraldiarekin bat egin du

Datorren maiatzaren 15etik 25era egingo da aurtengo Euskaraldia, hizkuntza-ohiturak aldatzeko mugimendu soziala. Hirugarren edizio honetan ere parte hartzeko deia egiten dihardute herriko hainbat eragilek eta tartean da ...eta kitto! Euskara Elkarteak ere. Bat egin dugu oraingoan eta hala adierazi nahi izan dugu argazki honen bidez ere.



Familia berbalagunen goiz ederra Alluitz Naturan

Aurreko zapatuan, Gurasoak Berbetan eta Ongietorri programetako hainbat familia Abadiño aldera joan ziren, han, Urkiolako Parke Naturalaren magalean dagoen Alluitz Natura Baserri Eskolan goiza pasatzera. 60 bat haur eta heldu abiatu ziren bi autobusekin, eguraldi bikainak lagunduta. Behin hara iritsita, hiru taldetan banatu ziren eta hainbat ekintza egin zituzten: batetik, gatzatua eta gazta freskoa egin eta dastatzeko aukera izan zuten; bestetik, taloak egin zituzten, txokolatzeko beteak eta, amaitzeko, animaliak bertatik bertara ikusi eta ukitzeko aukera izan zuten. Ardiei jaten eman zieten eta ponitxoekin argazkiak atera zituzten. Ardi latzaren inguruko azalpenak ere adi-adi jarraitu zituzten.

64. Itzuliaren azken etapa etxe ondoan izango dugu bihar

Eskuartearen duzuen alea inprentara bidaltzerakoan justu Itzuleraren erdian geunden, oraindik hiru etapen faltan. Atzo Markinan eta gaur Gernikan amaituko direnen ondoren, bihar Eibarren hasi eta amaituko da azkena. Etzi, domekan, etapa bera errepikatuko dute 3. Itzulia Basque Challengean, txirringularitza zaletuentzat prestatutakoan.

Eibarren hasi eta amaituko den Itzulia Basque Countryaren 64. edizioako azken etapak 153 kilometro eta erdi izango ditu. Bai irteera eta baita helmuga ere Untzaga plazan izango ditu. Ibilbidean zehar zazpi mendate aurkituko ditu tropelak, horietako hiru lehenengo mailakoak. Aurtengo edizioan, izugarri latza den Krabelingo igoera etaparen hasieran egongo da; beraz, urruneko eraso bat gerta liteke. Iazko edizioarekiko aldaketa nabarmenen artean, Trabakuara egingo diren bi igoerak daude; eta Gorlakoak kenduko dute, Karabietakoa gehitzeko Bergarara iritsi aurretik. Betiko lez, oso etapa bizia izango da eta, seguruenik, hor erabakiko da zeinek eramango duen Itzuliaren edizio hau.



Sasoi bateko EH-ko Itzuliaren eta Eibariko Bizikletaren jarraipena da gaur egungoa.

Ibilbidea.- Jakina, etapa hori aurrez aurre bizi ahal izango dugu eibartarrok, OCETAko antolatzaileek Itzuliaren ardura hartu zutenetik urtero izan den bezala. Txirringulariak 13:30ean abiatuko dira Untzagatik, Elgoibarreratz jotzeko. Lehen mendatea 3. mailako Elkorrieta izango da 11. kilometroan (2,6 km, %6'7ra). Handik Lasturrera joko dute, 1. mailako Azurkiri ekiteko 20. kilometroan (5,1 km, %7'4ra). Hona Elgoibartik bueltan 1. mailako Krabelinen bila joango dira Azitaindik 42. kilometroan (5 kilometro, %9'6ra) eta, behin Izua atzean lagata, 3. mailako Trabakua hasiko dira igotzen 66. kilometroan (3,3 kilometro %7'1era). Bertatik Ermura jaitsi eta gero, Eibartik 2. mailako Karabietako gainaren bila abiatuko dira 81. kilometroan (6,6 kilometro %6'7ra). Ubera eta Melkaldeetik berriro sartuko dira Eibarren, bertatik 1. mailako Izuaren bila joateko 111. kilometroan (4,1 kilometro %9'2ra). Handik bueltan eta, Markina-Xemein atzean lagata, 3. mailako Trabakuari ekingo diote berriro 133. kilometroan. Ermutik Amañara joango dira ondoren, T. Etxebarria kaleko helmugara lehenbailehen iristeko asmotan.

Ordutegia.- Aurrekusten duten ordutegiari jarraituz, Eibartik honela pasatuko dira: 13:30ean Untzagatik abiatu, 14:40ean Azitaindik Kra-



Aurreko asteko barixakuan aurkeztu zuten Itzuliaren amaiera eta Challengea.

Untzagan hasiko da biharko etapa (13:30) eta T. Etxebarrian amaituko (17:20)

belin bila, 15:35ean Ermutik Karabietara bila, 16:15ean Maltzagatik sartu eta Izua bila eta 17:10ean berriro Ermutik sartu eta, Amañatik, T. Etxebarriako helmugaren bila.

Jarraitu beharreko dortsalak.- 1-Almeida, 4-Del Toro, 6-McNulty, 23-Konrad, 24-Mollema, 25-Nys, 27-Skjelmoose, 32-Buitrago, 37-Van der Meulen, 71-Lipowitz, 72-Martinez, 76-Vlasov, 81-Mas, 83-Castriello, 91-Healy, 97-Carthy, 111-Barguil, 122-Gregoire, 124-G. Martin, 142-Hayter, 144-Schachmann, 145-Van Wilder, 172-Dunbar, 201-Zingle, 202-Kuss, 203-Kelderman, 221-Champoussin, 231-Hirschi eta 233-Alaphilippe. Euskaldunen artean honakoak nabarmendu daitezke: 11-Omar Fraile, 31-Pello Bilbao, 51-Alex Aranburu eta 52-Ion Izagirre, Euskaltel, Kern Pharma eta Caja Rural-RGA taldeetakoekin batera.



Ipuruako gimnastak ohorezko postuetan

Azken aldian batez ere boskote batek ordezkatu du Ipuruako gimnastika erritmikako kluba jokoan izan diren lehiaketetan: senior mailako laukotea osatu duten Naroa Alonso, Arrate Baskaran eta Haizeder eta Nahia Arguiz ahizpek eta jubenil mailako Ane San Martin. Azken asteburuan Euskal Ligako bigarren fasea eta Bizkaiko Federazioak antolatutako Macarena Milla Torneoa izan ziren jokoan Gernikako Jai Alain. Zapatuan jokatu zen bigarren horretan, Haizeder Arguizek urrea lortu zuen zintarekin, Nahia bere ahizpa seigarren izan zen, Alonso 8. eta Baskaran 16. sailkatuz. Oinarrizko jubenil mailan 13. postuan geratu zen Ane San Martinek oinarrizko Espainiako Banakako Txapelketan hartuko du parte aste honetan.

Aurreko asteburuan, bestalde, federatuen Gipuzkoako Txapelketan, Haizeder Arguizek txapela jantzi zuen xingola, uztaia eta pilota ariketetan, Nahia Arguizek zilarra eta Naroa Alonsok brontzea eskuratzen zuten bitartean. Ane San Martinek, bere aldetik, urrea eskuratu zuen jubenilen oinarrizkoetan.



Mek Eskubaloi emakumezkoen taldeak erraz eutsi dio mailari denboraldi honetan

Aurreko zapatuan Ipuruan Loyolaren aurkajokatutako partidurekin agurtu zuen denboraldi honetako Liga Andoni Perezek zuzentzen duen taldeak. Zilarrezko Ohorezko Mailan dagoenetik bere denboraldi onena osatu dute eibartarrek, meritu handiko 18 puntu bilduz taldeak baja garrantzitsuak izan dituen honetan. Zaleen aurrean jokatu azken partidur horretan eibartarrak hiru goleko aldearekin joan ziren atsedendira (17-14). Bigarren zatia desberdina izan zen eta, bisitariak aurrea hartu bazuten ere, Mek Eibarkoek jakin izan zuten

horri aurre egin eta neurketa berdintzea, 25nakoarekin amaitzeko.

1. Nazional Mailako gizonetako taldeak partidu bikaina jokatu zuen Tarazonaren aurrean eta hamar goleko aldearekin nagusitu zen (36-26). Garaipen horrek matematikoki sailkapeneko hirugarren postua ziurtatzeaz gain, taldea bigarren-gandik bi puntura laga du, hiru jardunaldi falta direnean. Jonay eta Haritz falta izan ziren arren, taldeak lehiatzeko gaitasuna eta sasoi bikaina erakutsi zituen denboraldiko tarte erabakigarri honetan. Asteburuan Erromon jokatu dute.

Urrezko hiru gerriko Inda Team-entzat

Zornotzako Larrea kiroldegian domekan jokatu k1 eta kick boxing modalitateko Euskadiko Txapelketetan, bertan izan diren Eibarko Inda Team taldeko hiru borrokalariek txapela jantzi dute, bakoitzak bere pisu eta mailan. Sandra Rocha eibartarrak 65 kilora arteko k1 mailakoa bereganatu du, Jhon Nunez eibartarrak 67 kilora artekoan nagusitu da eta, azkenik, Egoitz Rios elgoibartarrak urrezko gerrikoa jantzi du 75 kilora arteko k1 mailan. Jokoan izan dituzten borroka



guztietan nagusitu dira, beraz, Inda Team taldeko ordezkariak.

Jokin Altunak Katedralean hasiko du domekan bere txapelaren defentsa

Asteburu honetan hasiko da pilotaren buruz buruko txapelketa nagusiaren final-laurdenetako ligaxka eta Astelena frontoian hasiko du bere ibilbidea Jokin Altuna gaur egungo txapelkunak. Larrazabal Baiko enpresako aurrelaria izango du aurkari domekako jaialdiko partidua nagusian. Aurretik beste buruz buruko bat jokatu du, bigarren mailakoa kasu horretan, Aspeko Egiguren V eta Aldaberen artean. Jaialdia amaitzeko binakako interes handiko norgehiagoka antolatuta dute, Mariezkurrena eta Rezusta



gaur egungo atzelari onenekin eta Senar eta Murua proiektzio handiko aurrelariekin: Senar-Mariezurrena izango da Baikoko bikotea eta Murua-Rezusta Aspekoa.

Hiru-txirloko Gipuzkoako Txapelketako tiraldia jokatu da bihar Asola Berrin

Ohikoari jarraituz, arratsaldeko 17:00etan abiatuko da jaurtialdi hori, 54. Gipuzkoako Txapelketako



bosgarren jardunaldiari dagokiona. Lasturren aurreko asteburuan jokatu du laugarrenaren ondoren, gainera, Eibarko bolatokiko ordezkari bat dugu sailkapen nagusiko gorenean, Bittor Ugarteburuk (argazkian) lidergoa partekatzen du Azpeitiko Floreagako Gorka Etxanizekin. 17 txirlo dituzte biek, eta badira Asola Berriko beste kide batzuk ere jarraitzen dien taldearen barruan: Anartz Esteban (14 txirlo), Ganiz Rodriguez (13) eta Garikoitz Rodriguez (11) tartean.

Urki-Eibartarrak derbia jokatu da etzi

Erregionaleko Gorengo Mailako bigarren multzoko gure herriko taldeek indarrak neurtuko dituzte domekan Unben, 12:30ean hasiko den norgehiagokan. Urki lider da abantaila nahikoarekin Debako Amaikak Bat bigarren sailkatua-

rekiko eta mailaz igotzeko aukera bikainaren aurrean dago. Eibartarrak, bestalde, igo berria da eta ondo dihardu eusten mailari. Sailkapenean aldea badagoen arren talde bien artean, derbiek beti eskaintzen dute zeozer berezia.

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

- Emakumezkoen 1. Maila**
SD EIBAR - Real Madrid (bihar, 18:30)
- Gizonezkoen 2. Maila**
Real Zaragoza - SD EIBAR (bihar, 16:15)
- Gizonezkoen 2. Maila RFEF**
Utebo - SD EIBAR B (etzi, 12:00)
- Emakumezkoen 2. Maila RFEF**
SD EIBAR B - At. Madrid C (etzi, 16:00)
- Gizonezkoen 3. Maila RFEF**
SD EIBAR C - Padura (bihar, 18:00)
- Emakumezkoen Euskal Liga**
SD EIBAR C - Lakua de Vitoria (bihar, 15:30)
- Erregionaleko Gorengo Maila**
URKI - EIBARTARRAK (etzi, 12:30)
- Erregionaleko 1. Maila (Kopa)**
URKI B - Antzuola (gaur, 19:45)
- Ohorezko Jubenil Maila**
Arenas - SD EIBAR (etzi, 12:45)
- Jubenilen Nazional Liga**
SD EIBAR B - Danok Bat B (etzi, 18:30)
- Jubenilen Euskal Liga**
Añorga - URKI (atzo, 20:00)
- Kadeteen Euskal Liga**
SD EIBAR - Romo (bihar, 12:30)

FUTBOL-ZALLETUA

- Xania - Garajes Garcia (bihar, 09:00)
- Baserri - Bar Marem (bihar, 10:30)
- BOJ - Kalaka Buenos Aires (etzi, 09:00)
- Adahi Etxegi - Limpieza Rueda (etzi, 10:30)

ARETO-FUTBOLA

- Gizonezkoen Gipuzkoako 3. Maila (Kopa)**
Martutene - EIBARTARRAK (gaur, 20:30)

ESKUBALOIA

- Gizonezkoen 1. Nazional Maila**
Romo - MEK EIBAR (etzi, 12:15)
- Emakumezkoen Euskadiko Liga**
Malape Elgoibar - MEK EIBAR B (etzi, 12:15)

FERRUGBIA

- Gizonezkoen Euskadiko Liga**
Arrasate - EIBAR RUGBY (bihar, 16:30)
- Emakumezkoen Euskadiko Liga**
Sarako Izarra - ARRAS. EIBAR

SASKIBALOIA

- Gizonezkoen Gipuzkoako 2. Maila**
Debasket - ARTES. JUANTXO (bihar, 18:00)
- Emakumezkoen Gipuzkoako 2. Maila**
Zast Oak - EIBAR (bihar, 16:30)
- Gizonezkoen Gipuzkoako 3. Maila**
EIBAR B - Astigarragako (bihar, 14:30)

WATERPOLOA

- Gizonezkoen 2. Maila Nazionala**
Tres Cantos - URBAT (bihar, 18:00)
- Euskal Herriko 1. Maila**
URBAT B - WP9802 (gaur, 21:15)

Barixakuetako topaketa gozoak

Hamabost egunean behin, Untzaga plazan postua jartzen du Gazte Safa emakume taldeak. Jaki gozo eta gazi artean, tea lasai-lasai edanez, eurekin berba egiteko aukera ematen dute herriko emakume musulman gazteekin hartu-emana sustatzu. Gaur bertan izango dira, 17:30 inguruan. Aukera ederra herriko aniztasuna nolakoa den ezagutu ahal izateko.



Safa Emakume Taldeak urteetan egindako lanaren erreleboa hartu du Gazte Safak eta hainbat ekintza egin dituzte denbora honetan. “Adibidez, pandemiaren aurretik, boluntariotza lanak egingen genituen”, esan digu Romaesa Benslaiman elkarteko kideak. Pandemiarekin, ostera, ekintza hori eten egin zen, baita Udalak antolatzen zituen kultura arteko topaketak ere, eta herriko emakume musulmanek honako gogoeta egin zuten: “Zergatik mugatu herrian dugun presentzia horrelako ekintza puntaletara?”. Hainbat ideia izan zituzten eta “herrian aktiboago egotea” proposatu zuten. “Gainera, guk geuk gauzak antolatzea erabaki genuen, ez egun batean gonbidatu bezala joatea eta kitto”, diosku Benslaimanek. “Izan ere, kultura arteko topaketak egin direnean, kanpoko kulturak bakarrik elkartzen dira, eta gutako gehienak hemen jaiotzara eta beste txip bat daukagu, gauzak beste ikuspuntu batetik ikusten ditugu”.

Herriko aniztasunaren erakusle

Gauzak horrela, Untzagan postua jartzea pentsatu zuten. “Aurreiritziak apurtzea, jendeak gu ezagutzea eta eibartarron artean harremana izatea dira helburu nagusiak. Bestela, urtean behin bakarrik irteten bagara, edo ekitaldi puntaletan, zaila da harreman hori sustatzea”, Benslaimanek dioskunez. Horrez gain, talde solidario eta eskuzabala dela ere erakusten dute. “Bertatik ateratzen dugun dirua ekintza ezberdinetara bideratzen dugu: palestinarrei laguntzeko, boluntariotza ekintzetan



Jaki ezberdinez eta teaz gozatzear gain, herriko emakume musulmanak hobeto ezagutzeko aukera ematen du Gazte Safak. EKHI BELAR

Gazte Safa elkarteak postua jartzen du Untzagan barixakuetan, hamabostean behin

parte-hartzeko bidea zabalik laga dugu...". Euren ohi-turak eta kultura ezagutzera emateaz gain, emakume musulman etorri berriei hizkuntza eta jendea ezagutzeko aukera ematen diete. "Jendearekin harremana edukitzeko etortzen dira. Berbalagunen moduan, baina beste modu batean", zehazten digu Benslaimanek. Gainera, emakume horientzat postuan egotea garrantzitsua dela uste du: "Postuan eurak dira protagonista, jendearekin berba egiten dute, gustatzen zaie... Etorri berriek askotan ez dute lagunik, ez dute jendea ezagutzen, eta ekimen honen bitartez etxetik ateratzeko eta jendea ezagutzeko aukera eskaintzen zaie".

Jakiak, tea eta berriketak

Barixakuetan (normalean hamabost egunean behin) udaletxe alboan jartzen duten postua eta musikaz girotzen dute, bertaratu nahi dutenei harrera beroa egiteko. Mahaietan hainbat jaki aurkitu daitezke, batzuk gozoak eta beste batzuk gaziak eta, probatu ondoren, zapore bikaina dutela esan dezakegu. Horrez gain, tea edateko aukera ematen dute eta, lasai egon nahi izanez gero, ondo apainduriko bi eserleku jartzen dituzte bertan esertzeko eta berriketarako gonbitea eginez.

Postuan dauden moduko jakiak edo bestelako jana-riak egiten ikasi nahi izanez gero, Gazte Safak tailer-gastronomikoak eskaintzen ditu. Bertan izena emateko, gaztesafa@gmail.com helbidera idatzi besterik ez da egin behar. Eta eskuak zikindu nahi ezduenak ere badu enkarguak egiteko aukera ere, helbide berera idatzita.





Udaberriak badaki gure herriko txokoak dotoretzen. PEDROARRIOLA

Agur, Iñaxio

Lagun leial, igarri,
sarri zirikatzaile
eta beti zoriontzaille.
Amaren zaintzaile,
Anai laguntzaile
eta iloben adoratzaile.
Anbulategiko harrera egile,
Biltegiko jagole,
Atsedenerik bako langile eta
Zuzentasunaren bilatzaile.
PitiLarousse orojakile,
Geografiaren maitale
eta erroketan garaile.
Zure arimak ezagutu ditzala zeuk
leasiko mapamundian amestutako
herrialde urrun eta exotiko guztiak.



LAGUNOK (KAIKOAK)
ez zaitugu sekula ahaztuko

Paco Elkoro Ansola

2025/04/02

**"Gure eskerrik
beroena jasotako
maitasun
adierazpen
guztiengatik"**

- ETXEKOAK -



Francisco Romero Horrillo "Patxi"

2025/04/03

ESKERRIK ASKO
une latz hauetan
gurekin egon zareten
lagun eta familiako
guztioi.

- ETXEKOAK -



Iñaki Arana Muruamendaraz

2025/04/08

**Beti laguntzen!
Beti laguntzeko prest!
Beti denokin
eta denontzat!**

Iñaki, zorte handia izan da
zurekin adiskidetasuna
eta lana partekatzea

- EIBARKO ANBULATORIOA -



Miren Begoñe Maiora Gonzalez de Audikana

5. URTEURRENA
2020/04/13

**"Zure alaitasuna
eta maitasuna gure
gogoan daude"**

- ZURE FAMELIXA -



Juan Anchia Emparanza

5. URTEURRENA
2020/04/14

**"Beti
eramango
zaitugu
bihotzean"**

- ETXEKOAK -





Sari bat bestearen atzetik jaso dute Kaxa-ko dantzariak

KAXA dantza guneko hiru taldek hartzen dute parte lehiaketetan, eta azkenaldi honetan sari bat baino gehiago irabazi dute. Aipatutako taldeak junior kategorian dabilen KXXS, youth mailako KX, eta maila absolutuko KXL dira, eta Thiago Luiz Almeida koreografoak gidatuta, bikain aritu dira Elorrión, Orion, Leonen eta Santanderren berriki jokaturako txapelketetan. Elorrioko saioan, KXXS taldea garaile izan zen junior mailan, eta KX taldea bigarren geratu zen youth mailan. Kaxa-ko Marta Prolek esan digunez, KXXS taldea maiatzaren 17an Barakaldon egingo den 'Break on stage' lehiaketan arituko da. Talde horrek, gainera, Santanderren sari bikoitza jaso du: Rock Da House lehiaketan junior mailako lehen saria eskuratu du, eta hip-hop mailan 'Esencia' saria eman diote. Eta, hori gutxi balitz, maiatzaren 10ean Bilbon egongo dira, D'zanp lehiaketan.



Aratosteetako argazki erakusketa dago Topalekun

Aurreko astean banatu zituzten XXVII. Eguen Zuri argazki-lehiaketako sariak, Topalekun ikus daitekeen erakusketaren inaugurazioarekin batera. Apirilaren 21era arte ikus daiteke, egunero, tabernatik sartuta.



Beorlegiri eskainitako erakusketa Durangon

Durangoko Arte eta Historia Museoak Fernando Beorlegi artista eibartarrari eskainitako erakusketa zabaldu berri du, eta ekainaren 1era arte egongo da ikustera joateko aukera. Museoa Etxezarreta jauregian dago (Sanagustinalde, 16), eta ordutegia honako hau da: astelehenetik barixakura, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; zapatuetan, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; eta, domeketan, 11:00etatik 14:00etara. Erakusketarekin batera, bisita gidatuak ere antolatu dituzte: apirilaren 29an eta maiatzaren 7an eta 24an izango dira. Euskaraz zein gazteleraz egiteko aukera dago, eta hainbat ordutegi aukeran. Dohainik eskainiko dituzte, baina aurretik izena eman beharra dago. Informazio zehatzagoa kontsultatzeko zein izena emateko Museoaren webgunera jo daiteke (www.durangomuseoa.eus).



Giza Liburutegia ekimena, aurreiritziekin amaitzeko

Juan San Martín Udal Liburutegiak eta Immigrazio eta Kultura Aniztasuna unitateak *Giza Liburutegia* antolatu dute maiatzarako. Ekimenak estereotipatuak dauden pertsonak "irakurtzeko" aukera ematen du. Parte hartzeko Udalaren webguneko formularioa bete behar da, apirilaren 14tik maiatzaren 4ra.



Eibarko La Novenak itxiko ditu Antzerki Jardunaldiak

Los Reyes Católicos, Colón y otras historias lana antzeztuko du gaur La Novena gure herriko taldeak, 19:00etan Coliseon, eta lan horrekin agurtuko ditugu Eibarko XLVIII. Antzerki Jardunaldiak. Badira 12 urte antzerki taldea sortu zela, Ikasten elkartearen eskutik, eta Ernesto Barrutia eibartarraren gidaritzapean beste lan batzuk aurkeztu dituzte aurretik. Gaur taularatuko duten tragikomediak ordu eta erdi inguru irauten du, eta Patxi Mutiloa, Maribel Cascan, Isidro Caramazana, Isa Gonzalez, Eli Iriondo, Asun Sarasua, Conchi Anton, Begoña Moro, Vicen de Luis, Araceli Bono eta Ernesto Barrutia bera arituko dira eszenatokian. Juan Luis Agirrek lagunduko die pianoarekin.



“Al descubierto” filmari buruz arituko dira gaurko saioan

Maria Schrader zuzendariaren *Al descubierto* (*She said*) filmari buruz arituko dira gaurko zine-forum feministan, 18:30etik aurrera Portaleko areto nagusian. Pagatxa emakumeen elkarteak antolatu du saioa, eta sarrera libre eta doakoa izango da, publiko orokorarentzat. New York Times-eko bi kazetarik Harvey Weinsteinen aurka egindako ikerketa azalerraten duen drama da.



Coliseoko denboraldiko azken kontzertua domekan

Eibarko Musika Bandak domekan emango dio amaiera Coliseoko denboraldiari, 12:30ean hasiko den kontzertuarekin. Horretarako, Eibarko eta Soraluzeko Musika Eskoletako 15 bat ikaslerekin batera arituko dira: “Gainera, orain arte etorri direnak baino ikasle gazteagoak izango dira”, esan digu Andoni Vazquez Santos bandako zuzendariak. Formatuari dagokionez, berritasuna egongo dela aurreratu digu, “izan ere, musika jotzeaz gain, ikasle batzuek abestu ere egingo baitute”. Beti bezala, sarrera dohainik izango da.




Danborradarako izen-ematea


Maiatzaren 7an hasiko dira Sanjuanetako danborradetan joko diren abestiak ikasteko entseguak, eta horretarako maiatzaren 14a baino lehen eman behar da izena. Saioak eguaztenetan izango dira, eta ordubeteko iraupena izango dute. Haurrak 19.00etan hasiko dira, eta helduak 20:00etan. Beraz, maiatzaren lehen eguaztenean egingo da lehen entsegua, eta azkena ekainaren 18koa izango da. Danborradaren antolatzailleek “gutxienez” lau saiotara joatea gomendatzen dute, “bestela, jendea galduta ibiltzen delako”. Izen-ematea Udalaren webgunearen bitartez egin daiteke, eta haurren kasuan eskolan bertan egin ahalko da.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

		5	9					
	9		8			2	5	1
4			6					
	1		7			6		
5		7				8		3
		3			9		7	
				6				7
3	7	8			4		2	
				5	4			



soluzioa



**S
U
D
O
K
U**

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

2		4		3					
	3			6		2			7
7	6				5				
		5	8		4	1		6	
4		6	5		7	2			
				4				1	9
8			1		3			4	
				7		8			2

soluzioa



AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK

Apirilak 11 - 24

BARIXAKUA 11

ATE-IREKIAK

16:30/18:30 Deparkel Debabarreneko Parkinson Elkartearen ate-irekien jardunaldia. Elkartearen lokala (Ardantza, 1).



GAZTE SAFA

17:00/22:00 Gazte Safa elkartearen postua. Untzaga.

ZINE-FORUMA

18:30 "Al descubierta" (Zuz: Maria Schraderen). Dinamizatzailea: Yanire Sagredo Hernaez. Sarrera librea eta doakoa, publiko orokorarentzat. Antolatzailea: Pagatxa. Portalea.



ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "Los Reyes Católicos, Colón y otras historias" (La Novena, Eibar). 5 euro. Coliseo.

ZAPATUA 12

EUSKARALDIA

11:00/13:30 Euskaraldiaren informazio-mahaia. San Andres eliza parean.



BIZIKLETA SOLIDARIOA

12:00/14:00 eta 16:00/20:00 Pedalei eragin kausa on baten alde! ekimen solidarioa, kilometroak eginez Egoaziaren alde. Rural Kutxak antolatuta. Plaza Barrian.

ITZULIA

13:30 Itzulia Basque Country lasterketaren 6. etapa: Eibar-Eibar. Untzagatik irten eta Toribio Etxebarria kalean amaituko da (17:20).

KALEETAN KANTUZ

Abesbatzaren irteera, kantu-kalejira egiteko.

PAILAZOAK

16:00 eta 18:00 "Ostirala iritsi da", Porrotx eta Marimotots pailazoen eskutik. 10 euro. Antolatzailea: Jaixak Herrixak Herrixandako. Coliseo.



DOMEKA 13

ITZULIA

08:00 Itzulia Basque Challenge, zikloturistentzat. Untzagatik irten eta Toribio Etxebarria kalean amaituko da.

BISITA GIDATUA

11:00 "Errepublikak. Untzaga Plaza, oroimenaren lekua", Jesus Gutierrez historialariaren eskutik. **12:30** Bigarren taldearen bisita, euskaraz. Untzaga.

MUSIKA

12:30 Eibarko Musika Banda. Doan. Coliseo.

EGUAZTENA 16

AGURTZEN

18:00/20:00 Aurretiazko borondateei buruzko informazio-zerbitzua, Ikasten-en eskutik. Untzaga gizarte etxea (Arrate aretoa).

EGUAZTENA 23

MENDI-IBILIAK

08:11 Irteera, Ikasten elkartearen eskutik. Jarduera irekia eta doakoa. Bazkaria eraman. Trenaren irteera ordua.

EGUENA 24

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emaleentzat. Untzaga jubilatuta etxea.

ERAKUSKETAK

Apirilaren 21era arte:

- **XXVII. EGUEN ZURI argazki lehiaketako lanak erakusketa.** (Topaleku).

Apirilaren 27ra arte:

- **EIBARKO ARTISTEN ELKARTEAREN erakusketa kolektiboa.** (Portalea).
- **"IRUDIMENA ASKATU" Eibar BHI-ko ikasleen artelanak.** (Portalea).

Apirilaren 29ra arte:

- **"BIZITZA ONERAKO ALTERNATIBAK" erakusketa.** (Andretxea).

Apirilaren 30era arte:

- **"BURDINA HISTORIAN ZEHAR", 1. argazki-lehiaketaren erakusketa.** (Armagintzaren Museoa).

Eskualdeko Agenda

ELGOIBAR

11n (BARIXAKUA)
- **ANTZERKIA "Artea" / Txalo**
19:00 Herriko Antzokia

ERMUA

11n (BARIXAKUA)
- **ANTZERKIA "Bingueras de Euripides"**
20:30 Ermua Antzokia

DEBA

12an (ZAPATUA)
- **DANTZA Nazioarteko Eguna**
12:30 Portuko pasealekua
- **ANTZERKIA "Art Ilusio Antzezlan"**
17:30 Foruen Plaza

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **12an:** 22:30
- **13an:** 20:00
- **14an:** 19:30

“Wolfgang”
KOMEDIA DRAMATIKOA




2025/Espainia/110'
Zuzendaria: Javier Ruiz Caldera
Aktoreak: Miki Esparbé,
Jordi Catalan, Angels Gonyalons
Autismoa / Musika / Aitatasuna

2 ARETOA

- **12an:** 22:30
- **13an:** 17:00, 20:00
- **14an:** 19:30

“Muylejos”
DRAMA



2025/Espainia/100'
Zuzendaria: Gerard Oms
Aktoreak: Mario Casas, David
Verdaguer, Nausicaa Bonnín
Inmigrazioa / Gertatutakoa

ANTZOKIA

- **12an:** 22:30
- **13an:** 17:00 (1. Aretoa), 20:00
- **14an:** 19:30

“Guillermo Tell”
ABENTURA



2024/Erresuma Batua/133'
Zuzendaria: Nick Hamm
Aktoreak: Claes Bang, Connor
Swindelís, Ben Kingsley
Erdi Aroa / Kapa eta ezpata

ANTZOKIA

- **13an:** 17:00

“Super Wings”
ANIMAZIOA



2022/Hego Korea/89'
Zuzendaria: Xiaoqing Cai
Abenturak / Hegazkinak / Sare sozialak

FUNEUSKADI
Funeraria Mugica

TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funeraria

TANATORIO KREMATORIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Oraola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xixilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marques de Valdespina, 16</p>
---	---

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

ESKERTZAK ETA URTEURRENAK

Urkizu, 11 - solairuarteá
publizitatea@etakitto.eus

688 62 76 89

943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak, **ANA**, atzo zure urtiak izan ziralako!! Don't stop you now!!



Zorionak, **ELENE** Moyua, hillaren 16xan 6 urte beteko dozuz eta. Musu haundi bat Eibarko famelixaren partez.



Zorionak, **MIKEL** Garcia Murgoitio. Astelehenian 10 urte! Jarraitu umore horrekin eta musu potoluak etxekuen partez.



Zorionak, **JULEN!!** Martitzenian 11 urte bete zenduaz eta!! Patxo haundi bat famelixaren partez. Asko maitte zaittugu!



Zorionak, **JUNE!** Hillaren 15ian 2 urte beteko dozuzelako. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **LUCIA** Zubillaga! 8 urte beteko dozuz eta hillaren 24an. Patxo erraldoia etxekuen eta, batez be, Pablaren partez!



Zorionak, **JUNE**, atzo urtetxua bete zenduan eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez. Asko maitte zaittugu.



Zorionak, **AGER!** Hillaren 21ian 7 urte beteko dozuz eta. Musu eta besarkadak famelixaren partez. Maitte zaittugu!



Zorionak, **OIHE-NART!!!** Hillaren 18xan 14 urte beteko dozuz eta. Patxo erraldoia amatxo, aitatxo eta Aioraren partez.



Zorionak, **LIBE!!** Atzo 10 urte bete zenduaz eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **AIUR!** Gaur 6 urte bete dozuz eta. Asko maitte zaittugu. Manex, Lea, aita eta ama.



Zorionak gure super **AITATXO**ri, **LUCIA**, **JULEN** eta **AMATXO**ren partez. Asko maite zaittugu eta onena zara! Jarraitu holan!! Patxo haundi bat!!!

Iragarki laburrak



943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Zumaian 3 logelako alojamendu turistikoa asteka alokagai, uda zein beste edozein urtarotan (garajea ere badu). Etxea 2019an guztiz berriztuta. Zumaia erdian dago (Juan Belmonte kalea), baina taberna giroetatik kanpo. 678222229.
- Logelak alokatzen ditut Eibarren. 651479142.

3. LOKALAK

3.2. Errentan

- Garaje partzela alokagai Urkizuko dorreetan. 609453946.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiri sozio-sanitarioa) -baita ospitalean ere- eta garbiketarako. Erreferentziak. Orduka. 667060292.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 632426318.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak pasiatzeko. Baita asteburuetan ere. 617571210.
- Gizonezkoa eskaintzen da zapatuetan lan egiteko. Goizez edo egun osoan. 645735442.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. 641756213.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde zaintzeko. Baita gauez ospitalean ere. 638421827.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 632015835.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. Erreferentziak. 625200924.

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. 642044618.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. 631375117.
- Mutila eskaintzen da garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. 635944602.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. 641910253.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta sukaldari bezala. 631730814.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko (sozio-sanitario tituluarekin), baita ospitalean ere, eta etxeko lanak egiteko. 660511781 eta 943742330. Elena.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauez ere. 642852854.
- Neska eskaintzen da goizez umeak zaintzeko. 640050714.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 632844780.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 632768653.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 642431753.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 611909082.

4.2. Langile bila

- Zerbitzaria behar da Buenos Aires eta Kalaka tabernetarako. Bidali CV: buenoseibar@gmail.com

- Langilea behar da Armagintzaren Museoan ordezkapenak eta bisita gidatuak egiteko. Bidali CV: ondartzet@gmail.com
- Odontologo orokorra behar da Ermuko hortz klinika batean. Astean bat edo bi egunerako. Bidali CV: niklinika@gmail.com

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

- Euskarazko irakaslea behar da B2 titulua ateratzeko klase partikularrak jasotzeko. 677689227.

5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- "Obras completas de Jose Miguel de Barandiaran" lana salgai. 15 tomo dira. 688691739.

6.2. Eman

- 3 hilabeteko txakurra oparitzen da, Kaukaso artzain arrazakoa. Txerto guztiekien. 678932135.

gremioen gida



ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnoa: 943 12 73 50
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

ELEKTRIZITATEA

THELECER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko argentziak
610 532 922 www.thelecer.com

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia
J.A. GISASOLA, 4 - ac
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@crystalcrijocha.com eta faxa: 943 203 993

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko
AROTZEGIA

baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txontea, 30 - 1. eta behea
Tfnoa: 943 12 13 87 www.ulmar.net

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza
irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.
Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobeez
goza dezazun
Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa: 943-120108
www.irazabal.net

PLAGEN AURKA

PLAGANATURA
PLAGEN AURKARI ZERBITZUAK
www.plaganatura.com
943 206 700
EL GOIBAR



943-206776



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Aduxa Aho Kirurgia,
Periodontzia, Implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

 Facebooken: Clínica Dental Irazabal www.clinicairazabal.com



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com